

## VITAL ARTEA 2024: “2023ko sariak” mahai-ingurua (Zas Kultur)

[Arte Vital Lehiaketa](#)

[Vital Fundazioa Kulturunea](#)

[A Aretoa](#)

2024ko irailaren 12a

19:00etan

Sarrera librea edukiera bete arte



**Vital Fundazioak** urtero antolatzen duen ekimena da, eta gure eskualdean Araban ekoiztako artea bultzatu eta balioetsi nahi duen lehiaketa bakarra izateagatik nabarmentzen da. **Zas Kultur** kultur eragileak bat egiten du **Vital Artearen** urteroko deialdien helburu nagusiarekin: gure tokiko artea sustatzea. Hori dela eta, **Zas Kultur** eta **Vital Fundazioa** elkarlanean aritu dira azken hiru urteetan lehiaketaren osagarri diren hainbat jardueratan, gure zero kilometroko artistei modu eraginkorragoan laguntzeko.

### Informazioa

2023ko edizioan saritutako pertsonekin topaketa: Alejandra Bueno, Natalia Albeniz, Jesús Ramírez eta Zirika. Artistek jendaurrean partekatuko dituzte beren lanak eta beren ibilbidea,

Rubén Díaz de Corcuera artista eta idazlearen moderazioarekin.

## **Sarrera**

Sarrera librea edukiera bete arte.